

## Independentzia eta sozialismoa! Borrokak ez du etenik!

ASKATASUNAREN BIDEAN, EHK-EUSKAL HERRIKO KOMUNISTAK, EUSKO EKINTZA. ::  
08/04/2017

[EUS-CAST] Varios colectivos convocan una movilización en Durango con motivo del Aberri eguna

...dei egiten dizuegu Durangora joateko, apirilaren 16an, igandean, eguerdiko 12etan, Andra Maria elizako arkupera. Han Herri Batzarra egingo dugu.

Kolektiboki eztabaidatuko dugu gaur egungo egoeraz eta denon artean erabakiko zer egin Euskal Herri Langilearen askapen nazional eta sozialaren aldeko borroka guztiak indartzeko.

Egun, gure ustez, Aberri Eguna egun folkloriko hutsa, zentzurik txarrenean "normalizatuta", edota indar politiko instituzionalen unez uneko politikak aldarrizkoetan eguna bilakatu da. Gurea, zapaldutako nazioa izanik, sozialki eta nazionalki zapalduta, ulergaitza da Aberri Eguna borrokaren aldarrizkapenerako eguna ez izatea. Horregatik, zaila da zerbait partekatzea, egungo zapalkuntza nazional eta soziala existitzen ez dela aldarrizkatzeko dutenekin; edo estatu konkistatzaileen legitimitatea, autonomiarekin eta inondik inora existitzen ez den bi berdinaren arteko harremanarekin egunero zuritzen dutenekin; edo Aberri Eguna beraien bira ideologiko lotsagarria zuritzeko erabili nahi izango dutenekin.

1978ko Aberri Eguna, Hego Euskal Herriko lau hiriburu eta Larrun mendian. Irudian, Iruñeko manifestazioa Gazteluko Plazan, 35.000 lagun inguru elkartu ziren.

Aurten ere, Aberri Eguna, kapitalismoaren krisi ekonomiko globalak bete betean harrapatu du. Egoera honek Euskal Herri Langilearen sektore guztiok jotzen gaitu, eta bereziki Langileria. Langile klasea. Honen ondorioz, Ezker Abertzalea ere krisi betean dago.

Egunero sufritzen ditugu zapalkuntza nazional, sozial eta patriarkalak: langabezia iraunkor eta estructurala; pobrezia soziala, ekonomikoa, energetikoa, elikadurazkoa; etxegabetzeak eta prekaritatearen larritzea, nagusiki emakumeontzat; lan istripu ikaragarriak eta lanean hildako langile ugari; esplotazio ekonomikoa; gizon eta emakumeon arteko lan sarien diskriminazioa; hezkuntza, osasungintza eta zerbitzu sozialetan murrizketak; pentsioen baliogabetzea; hipoteken soka itogarria eta argindarraren prezioaren igoera; terrorismo patriarkal etengabea eta emakumeon aurkako biolentzia egiturazkoa: bortizkeriak, eraso sexualak, bortxaketak, tratu txarrak eta erailketak, gobernuen eta komunikabideen kolaborazio hipokritaz, eta tamalez, jende askoren indiferentziaraz; zapalkuntza nazionala eta gure aberriaren okupazio militarra; Euskararen desagertze progresiboa eta euskaldunon aurkako etnozidioa; atxilotak, adierazpen askatasunaren aurkako erasoak eta (auto)zensurak; torturak eta tai gabeko oldartze polizialak; espetxeetako egoera okertzea eta euskal preso politikoien zein beren senideen aurkako sakabanaketa areagotzea ...

Frantzia eta Espainiako bi estatu zapaltaileek oligarkia kapitalista eta imperialisten tresnak

dira, zeinek beren eskura dituzten biolentzia mota guztiak erabiltzen baitituzte, botere exekutibo, legislatibo eta judizialetatik. Hori da klase borrokaren errealityea, sistemak estali, ezkutatu eta mozorrotu nahi duena. Eta horri "Elkarbizitza Demokratikoa" esaten diote. "Bakea". "Berradiskidetzea". "Demokrazia". "Tolerantzia". "Normalizazioa". "Zuzenbide Estatua". "Giza eskubideak". "Garai eta fase berriak". Klase borroka gogortzen eta gordintzen ari da egunetik egunera.

Estatu frantses eta espainolek beren LEGE, ORDEN ETA INDARRA inposatu nahi dizkigute, eta guk geure burua defenditu behar dugu Euskal Herriarentzako JUSTIZIA, ESKUBIDE ETA ASKATASUNAREN bidez. Zapalkuntza nazional, sozial eta patriarkal honetan burgesia autonomista basko-espainolaren ezinbesteko kolaboracionismo aktiboa izan dute betidanik: EAJ-PNV alderdia, gaur egun Euskal Erkidego Autonomoan PP eta PSOEkin aliatutik, nazio eta klase jarrera argi utzi duena berriz. Eta erreformista guztien konplizitatea ere badute, beti PNV eta Geroa Bairen atzetik, eta men eginez, balizko "batasun nazionala" edo "progresista" bilatzen, eta Euskal Herri Langilea engainatzen. Hori baita oportunistei Kapitalismoak eman dien funtzioa: langileak manipulatzea, alienatzea eta desorientatzea. Horretarako daude eta horretan ari dira egunero lanean instituzio guztietai. Adibideak denon ditugu buruan.

Estatu konkistatzaileek biolentziaren monopolioa berreskuratu dute azkenean eta minuturo erabiltzen dute Euskal Herri Langilearen aurka. Apirilaren 8an Baionan egingo duten ekitaldiak are legitimoago bilakatuko du Estatu okupatzaleen bortizkeriaren monopolioa, eta ondorioz, borrokan segitzen dugun herri eta langile sektore guztiak aurkako errepresioa. Ezin da bakerik izan klase borrokan murgilduta dagoen gizarte batean. Zapalkuntzek dirauten bitartean, zapalduontzat ez dago bakerik.

Aurtengo Aberri Egunean oroituko ditugu duela 80 urte nazi-faxismo espainolista nazional-katolikoak, Frankismoak, alegia, Euskal Herriaren aurka egindako gerra-krimenak, bereziki, Gernikan, Eibarren, Otxandion eta Durangon, eta PNVk Bilboren entregarekin eta Santoñako errrendizioarekin egindako traizio lotsagarriak.

Gernikan erreformistek aurten egin nahi duten Aberri Egunaren leloa hauxe da: "Askatasuna eta Bakea". Guk diogu: ASKATASUNA DA BAKEA. Zapalduon askatasun osoa, integrala, globala eta erradikala da benetako bakea. Zapalkuntza guztien suntsitzea. Hori da gure Bakea. Bestea, denetariko eta askotariko burgesiek Euskal Herri Langileari egiten dioten gerra da. Zapaltaileen bakea zapalduontzat gerra baita.

Hau guztia ikusita, agiri hau sinatzen dugun antolakundeok deialdia egiten diogu Euskal Herri Langileari, eta bereziki Euskal Langile Klaseari, Aberri Eguna berriz ere borroka eguna izan dadin, gure ASKATASUN OSOAREN alde, Euskal Herriaren DESKONKISTA OSOAREN alde, AMNISTIA OSOAREN alde.

Nazioaren askatasuna Independentzia den bezalaxe, langileon askatasuna Sozialismoa da; emakumeon askatasuna, eta beraz, guztiona ere, Feminismoa; euskaldunon askatasuna, Euskal Herriaren Berreuskalduntzea. Prozesu askatzaile beraren helburu osagarriak dira, zeinak sintetizatzen baitira xede honekin: EUSKAL ERREPUBLIKA SOZIALISTA, INDEPENDENTE, FEMINISTA ETA EUSKALDUNA.

Honen alde dei egiten dizuegu Durangora joateko, apirilaren 16an, igandean, eguerdiko 12etan, Andra Maria elizako arkupera. Han Herri Batzarra egingo dugu. Kolektiboki eztabaidatuko dugu gaur egungo egoeraz eta denon artean erabakiko zer egin Euskal Herri Langilearen askapen nazional eta sozialaren aldeko borroka guztiak indartzeko.

**EUSKAL HERRI LANGILEAREN ASKATASUN OSOA HELBURU,**

**BORROKA DA BIDE BAKARRA!**

---

**ABERRI EGUNA 2017**

**INDEPENDENTZIA ETA SOZIALISMOA!**

**BORROKAK EZ DU ETENIK!**

A día de hoy, en nuestra opinión, el Aberri Eguna ha acabado convirtiéndose en una celebración meramente folklórica, en algo “normalizado”, como si de una jornada festiva más se tratase, o en un día que aprovechan las fuerzas políticas institucionales para hablar de cuestiones políticas cotidianas. Pero siendo como es la nuestra una nación conquistada, oprimida nacional y socialmente, nos resulta incomprensible que el Aberri Eguna no sea un día propicio para la reivindicación de la lucha. Es por ello, que igualmente nos resulta muy difícil compartir este día con aquellxs que niegan las citadas opresiones; o con aquellxs que las ocultan, mediante la alabanza de unas “autonomías” que legitiman el Estado opresor y el cuento de unas inexistentes relaciones bilaterales entre iguales; o con esxs otrxs que lo utilizarán para justificar su vergonzosa deriva ideológica. Este año también celebraremos el Aberri Eguna en medio de la crisis global del capitalismo. Esta situación golpea a todos los sectores del Pueblo Trabajador Vasco, y especialmente a la Clase Obrera. La Izquierda Abertzale también está en plena crisis.

Sufrimos cada día las opresiones sociales, nacionales y patriarcales: el paro permanente y estructural: la pobreza social, económica, energética y alimentaria; los desahucios y el agravamiento de la precariedad, mayormente contra las mujeres; los accidentes laborales, las trabajadoras y trabajadores muertos en su puesto de trabajo; la explotación económica; la discriminación entre las remuneraciones de hombres y mujeres; los recortes en educación, sanidad y servicios sociales; la desvalorización de las pensiones; la soga al cuello de las hipotecas y la subida del precio de la luz; el constante terrorismo patriarcal y la violencia estructural contra las mujeres: abusos, agresiones sexuales, violaciones, malos tratos y asesinatos, con la colaboración hipócrita de los gobiernos y los medios de comunicación, con la indiferencia de muchos y muchas; la opresión nacional, la ocupación militar de nuestra patria; la desaparición progresiva del Euskara: el etnocidio contra las y los euskaldunes; detenciones, atentados contra la libertad de expresión y (auto)censuras; torturas y constantes agresiones policiales; el empeoramiento de la situación en las cárceles y la agudización de la dispersión contra las presas y presos políticos vascos y sus familias...

Los dos estados opresores, Francia y España, son instrumentos de las oligarquías capitalistas e imperialistas que utilizan todas las violencias a su alcance, desde el poder

ejecutivo, legislativo y judicial. Ésa es la realidad de la lucha de clases, que el sistema quiere tapar, esconder y disfrazar. Y a eso le llaman “Convivencia Democrática”. “Paz”. “Reconciliación”. “Democracia”. “Tolerancia”. “Normalización”. “Estado de Derecho”. “Derechos Humanos”. “La nueva fase y los nuevos tiempos”. La lucha de clases se está endureciendo y recrudeciendo día a día.

Los estados francés y español intentan imponernos su LEY, ORDEN Y FUERZA y tenemos que defendernos con JUSTICIA, DERECHOS Y LIBERTAD para Euskal Herria. En esta opresión nacional, social y patriarcal han contado desde siempre con el imprescindible colaboracionismo activo de la burguesía autonomista vasco-española, el PNV, aliado hoy en día de nuevo con el PSOE y el PP en la llamada Comunidad Autónoma Vasca. Y con la complicidad de todos los reformistas, siempre yendo a remolque del PNV y de Geroa Bai, buscando una hipotética “unidad nacional” o “progresista”, y engañando al Pueblo Trabajador Vasco. Ésta es la función que el Capitalismo tiene asignada a los oportunistas: manipular, alienar y desorientar a las trabajadoras. Para eso están y en eso trabajan todos los días en todas las instituciones.

Los estados conquistadores han recuperado al fin el monopolio de la violencia y lo utilizan a cada minuto contra el Pueblo Trabajador Vasco. El acto que realizarán el 8 de abril en Bayona hará aún más legítimo el monopolio de la violencia de los estados ocupantes contra todos los sectores obreros y populares que seguimos en la lucha. No puede haber paz en una sociedad sumergida en la lucha de clases. Mientras las opresiones continúen, no hay paz para las oprimidas y oprimidos.

En el Aberri Eguna de este año recordaremos los crímenes de guerra del nazi-fascismo españolista nacional-católico, es decir, lo que comúnmente se llama el Franquismo, especialmente los bombardeos de Gernika, Eibar, Otxandio y Durango; y también las traiciones cometidas por el PNV con la entrega Bilbao y rendición de Santoña.

El lema del Aberri Eguna que los reformistas quieren hacer este año en Gernika es: “Askatasuna eta Bakea”. Y nosotras decimos: ASKATASUNA DA BAKEA. LA LIBERTAD ES LA PAZ. La libertad completa, integral, global y radical de todas y todos los oprimidos es la verdadera paz. La destrucción de todas las opresiones. Ésa es nuestra Paz. La otra es la guerra que la burguesía desarrolla contra el Pueblo Trabajador.

Teniendo en cuenta todo lo expresado en este manifiesto, las organizaciones firmantes de este texto hacemos un llamamiento al Pueblo Trabajador Vasco, y muy especialmente a la Clase Obrera Vasca, para que el Aberri Eguna vuelva a ser un día de lucha a favor de nuestra PLENA LIBERTAD, a favor de la DESCONQUISTA COMPLETA de Euskal Herria, a favor de la AMNISTIA TOTAL.

Así como la Independencia es la libertad de la Nación, la libertad de las trabajadoras y trabajadores es el Socialismo; la libertad de las mujeres, y por lo tanto, de todos y todas nosotras es el Feminismo; la libertad de las euskaldunes, y de los vascoparlantes es la Reeuskaldunización de Euskal Herria, y por consiguiente, también la libertad de todas aquellas personas a las que el etnocidio ha privado del conocimiento del Euskara, nuestra única lengua nacional. Son objetivos complementarios del mismo proceso liberador, los cuales se sintetizan en esta lema: EUSKAL ERREPUBLIKA SOZIALISTA, INDEPENDIENTE,

FEMINISTA ETA EUSKALDUNA, es decir, la REPÚBLICA SOCIALISTA VASCA, INDEPENDIENTE, FEMINISTA Y EUSKALDUN.

A favor de todo esto os hacemos un llamamiento para acudir a Durango el 16 de abril, domingo, a las doce del mediodía, a los porches de la iglesia Andra Maria. Ahí realizaremos una Asamblea Popular, un Herri Batzarre. Debatiremos colectivamente sobre la situación y entre todas y todos decidiremos qué hacer para fortalecer todas las luchas a favor de la liberación nacional y social del Pueblo Trabajador Vasco.

EUSKAL HERRI LANGILEAREN ASKATASUN OSOA HELBURU,

BORROKA DA BIDE BAKARRA!

---

<https://eh.lahaine.org/independentzia-eta-sozialismoa-borrokak-ez>